

LAN ESKAINTZEN ATARIAN LANPOSTUAK AUKERATZEKO JARRAIBIDE OROKORRAK

OSO GARRANTZITSUA – KONTUAN HARTZEKO OHARRA.

8.8.3. oinarri orokorraren arabera, bertan zehaztutako epean eta eran lanposturik aukeratzeko ez duten pertsonak galdu egingo dituzte hautaketa prozesuan parte hartzeagatik lortutako eskubideak; eta hori gertatuko zaie aukeratzeko lanposturen bat esleitu ezin zaien pertsonari, aukeratzeko lanpostu guztiak eskubide hobeko beste pertsona batzuei esleitu zaizkielako eta lanpostuak eskaini zirenean aukeratu ahal izan zituzten beste lanpostu batzuk, markatu ez zituztenak. Hortaz, halakorik gerta ez dadin, gomendatzen da aukeratzeko interesdunak bete ditzakeen ahalik eta lanpostu gehien, esleitu ahal izateko, horrela, promozionatzeko bidea emango duen lanposturen bat.

Esate baterako, zerrendako 9. postuan dagoen pertsonak zenbaki hori baino lanpostu gutxiago aukeratzeko baditu, demagun bost, lanpostu gehiago aukeratzeko baduenean betetzen dituelako baldintzak eta baduelako hizkuntza eskakizuna, eta bost lanpostu horiek esleitzen bazaizkie zerrendan bere aurretik dauden pertsonari, ezingo zaio esleitu lanposturik, eta prozesuan parte hartzeagatik lortutako eskubideak galduko ditu.

- 1) Lan Eskaintzen Atarian sartu esteka honen bidez, erabiltzailearekin eta pasahitzarekin.
- 2) Sakatu **Zure eskariak** atalean.
- 3) Koka zaitez gainditu duzun prozesuaren lerroan, eta eskuineko azken zutabearen – **Lanpostuak hurrenkeraren arabera eskatzea** dioen horretan–, sakatu **gezi berdean**.



Zure eskariak

Atal honetan UPV/EHUn lan-eskaintzen deialdietan parte hartzeko egin dituzun eskariak kontsultatu ahal izango dituzu. Halaber, Ordainketa Sistemara sartu edo dagokion ordainagiria inprimatu ahal izango duzue tasa ordaintzeko, beti ere eskariak aurkezteko epea irekita badago.

Deialdia	Hautaketa-prozesua	Eskariak aurkezteko epea	Eskaria kontsultatu	Zerrenda kontsultatu	Puntuazioa kontsultatu	Lanpostuak hurrenkeraren arabera eskatzea
EPE 2019_2020_2021_2022 AZPko F/L	Administrariaren eskala (Ohiko prozesua)	2023-01-09 -> 2023-01-30				
EPE 2019_2020_2021_2022 AZPko F/L	Kimikako teknikari espezialista - Kimika (Enplegu publikoa egonkortzeko ezohiko prozesua)	2022-12-01 -> 2022-12-20				
EPE 2019_2020_2021_2022 AZPko F/L	Kimikako teknikari espezialista - Kimika (Ohiko prozesua)	2022-12-01 -> 2022-12-20				
EPE 2019_2020_2021_2022 AZPko F/L	Kimikako teknikari laguntzailea - Kimika (Enplegu publikoa egonkortzeko ezohiko prozesua)	2022-12-01 -> 2022-12-20				

- 4) Eskatu ditzakezuen lanpostuen zerrenda agertuko zaizu. Lerro bakoitzeko eskuineko azken zutabearen –“Hurrenkerera”– dioenean– laukitxo bat agertzen da: hor ipini behar da lanpostu horri eman nahi diozun hurrenkeraren zenbakia:



DEITUTAKO LANPOSTUAK AUKERATZEA

AUKERATU NAHI DITUZUN LANPOSTU GUZTIAK ETA ADIERAZI EZAZU BAKOIZERAKO LEHENTASUN-ORDENA
 Kontuan izan esleipena lanpostuaren eskakizunen, gaitutuen zerrendako behin betiko ordenaren eta zuk adierazitako lehentasun-ordenaren arabera izango dela.

Elektrizitateko/Elektronikako teknikari espezialista - Elektrizitatea (Enplegu publikoa egonkortzeko ezohiko prozesua)

Marka	Taldea	LZko zomb.	Lanpostuaren izena	Hor.	Maila	H.E.	Bet. Esp.	Campusa	Lantokia	Lanaldia	Hurrenkerera
	3	L108	Mantentze Laneko Ofiziala	26	19	PL2		ARABA	Farmazia Fakultatea	NORMALIZADA	<input type="text"/>
ORD	3	L470	Mantentze Laneko Ofiziala	28	19	PL2-2020/02		GIPUZKOA	DONOSTIAKO CAMPUSEKO GERENTEORDETTZA	NORMALIZADA	<input type="text"/>
	3	L469	Mantentze Laneko Ofiziala	27	19	PL2-2019/11		BIZKAIA	.	NORMALIZADA	<input type="text"/>
	3	L79	Mantentze Laneko Ofiziala	11	19	PL2		BIZKAIA	ARKITEKTURA ETA LANAK	NORMALIZADA	<input type="text"/>
	3	L65	Mantentze Laneko Ofiziala	8	19	PL2		BIZKAIA	ARKITEKTURA ETA LANAK	NORMALIZADA	<input type="text"/>
	3	L75	Mantentze Laneko Ofiziala	10	19	PL2		BIZKAIA	ARKITEKTURA ETA LANAK	NORMALIZADA	<input type="text"/>
	3	L68	Mantentze Laneko Ofiziala	9	19	PL2		BIZKAIA	ARKITEKTURA ETA LANAK	NORMALIZADA	<input type="text"/>

Itzuli Datuak gorde Inprimatu

- 5) 8.8. oinarri orokorrean zera aipatzen da: “A) Lanpostuak aukeratzeko prozedurara deitutako pertsonak prozesu bakarrean parte hartu badute, hau da, ohiko prozesutik datozen deialdi espezifikoetan edo egonkortasunerako ezohiko prozesutik datozen deialdi espezifikoetan, zazpi



(7) egun baliouduneko epea izango dute lanpostua aukeratzeko, deialdietako azken eta behin betiko kalifikazioa argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasita. B) Lanpostuak aukeratzeko prozedurara deitutako pertsonak bi prozesuetan parte hartu badute, hau da, ohiko prozesutik datozen deialdi espezifikoean zein egonkortasunerako ezohiko prozesutik datozen deialdi espezifikoean, lanpostuen zerrenda bakarra osatuko dute, nahi izanez gero, prozesu bateko zein besteko lanpostuak tartekatuta, eta beren lehentasunen arabera hurrenkeran jarrita, kontuan izanda lanpostuak zein hizkuntza eskakizun duen eta zein betebeharrak espezifikoak, halakorik badu.

Lanpostuak aukeratzeko prozedurara deitutako pertsonak prozesu bietako bakarrean parte hartu badute, kasuan kasuko deialdiko lanpostuak baino ezin izango dituzte eskatu, dagokion kategoria eta espezialitatekoak”.

Oinarri horretan zehaztutakoa bete ahal izateko, ezohiko egonkortze-prozesuaren deialdietan ohiko prozesuko lanpostuak ere eskainiko dira, eta ezkerreko "O" batekin identifikatuko dira. Eskaintza hau oiko prozesuan lanpostuak lortzeko hurrenkera dituztenentzat izango da.

Horrela, egonkortze prozesuaren deialdian zein ohiko prozesuaren deialdian parte hartzen dutenek bi deialdietarako lanpostuak hautatuko dituzte ezohiko prozesuaren deialdiaren lan-
eskaintzen atariaren pantailatik, eta lanpostu guztietarako lehentasuna adieraziko dute, baita O
identifikazioarekin agertzen direnetarako ere.

Pertsona horiek ez dute hautaketa hori egin behariko ohiko prozesuaren deialdian.

Ezohiko prozesuaren deialdian bakarrik parte hartzen dutenek lanpostu guztiak aukeratu behariko dituzte, O identifikazioa dutenek izan ezik.

Ohiko prozesuko deialdietan soilik parte hartzen dutenek hautaketa egin behariko dute deialdi horietan.

6) Pertsona hautatuak izendapen askeko lanpostuak betetzen ari diren bitarteko funtzionarioak direnean, destinoa lanpostu horretan izatea aukeratu ahal izango dute lanpostuak aukeratzeko fasean, betiere lanpostuak horretarako aukera ematen badu. Halakoetan, ez da erabiliko lan eskaintza publikoko plazarik Kasu horretan, hautaketa-pantailan "LD" gisa markatutako postua ikusiko dute, eta aukeratzeko badute, gainerakoetan ez dute lehentasun-ordenarik markatu behariko.

7) Hautatutako lanpostuetan lehentasun-ordena behar bezala bete dela egiaztatu ondoren, "**Datuak gorde**" botoia sakatu behar da, lanpostuen zerrendaren azpian dagoena. Kontuan izan pantaila hau nahi adina aldiz aldatu ahal izango dela postuak aukeratzeko epearen barruan, baina gorde den azken hautaketak bakarrik izango du balioa, adierazitako epearen barruan "**Datuak gorde**" botoia sakatuz, eta aurreko guztiak ondorioz gabe geratuko dira. Egindako hautaketaren frogagiria inprima daiteke, "Inprimatu" botoia sakatuta.

Itzuli

Datuak gorde

Inprimatu